



Langabeziak behera egin du berriz ere Beasainen

Desciende el número de personas desempleadas en Beasain

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ↪ Puntu erdia jaitsi da langabezia-tasa Beasainen
- ↪ Enplegua sustatzeko ekimen berriak abiaraziko ditu Udalak
- ↪ EITak pasatzeko diru-laguntzak
- ↪ *Las nuevas plazas de Arangoiti van tomando forma*

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ↪ Elurtea Beasainen
- ↪ Pantaila digital berriak
- ↪ Urteko lehen azoka berezia
- ↪ Emiliana Garciak 103 urte
- ↪ Garingo Jaiak (mendi lasterketa)
- ↪ 3X3 saskibaloitxapelketa
- ↪ Igartza Musika Programa. KUP eta Vocaliaren kontzertuak

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ↪ Behar gehien duten pertsonentzako laguntza eta aukera berriak
- ↪ Juan Manuel Barandiarani elkarrizketa

BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA

GUTUNA



Aitor Aldasoro
Beasaingo Alkatea

Puntu erdia jaitsi da langabezia-tasa Beasainen

621 langabaturekin eta %9,04ko langabezia-tasarekin hasi genuen 2017.urtea. Bidean 60 herritarrek lanean hasteko aukera izan zuten eta beraz, %8,37ko tasarekin eta 561 pertsona langabaturekin (337 emakume eta 224 gizon) amaitu genuen urtea, Lanbideren azken datuen arabera.

Aipatzekoa da, langabetuen artean gehiengoak ez duela ikasketarik edota oinarizko ikasketak dituela. Hori dela eta, aurten ere, Ikolan-Lanaldi enpresarekin elkarlanean, ikastaro berriak eskainiko ditugu ikasketarik ez duten herritarren lan aukerak areagotzeko. Aurten gainera, emakumeei zuzendutako ikastaro bereziak ere antolatuko ditugu, emakume langabetuen kopurua handiagoa delako (337).

Era berean, herriko ekintzaileei ate berriak ireki nahi dizkiegu eta horretarako diru-laguntzak eskainiko ditugu coworking proiektuak martxan jartzeko.

Aukera berriak eskaintzea funtsezkoa da guretzat urtetik urtera langabezia tasak eta langabetuen kopuruak behera egin dezan gure herrian. Hasiera hasieratik esan dugu Udalak eragile aktiboa izan behar duela enplegu sustapenari dagokionean eta konpromiso horrekin urtero egitasmo berriak eta ezberdinak martxan jartzen ari gara herriko langabetuen profilak kontuan hartuz eta eskaintza haien beharretara egokituz.

La tasa de desempleo en Beasain sigue a la baja

Comenzamos el año 2017 con 621 personas paradas en el municipio y hemos concluido el año con 60 personas desempleadas menos.

Este dato nos lleva a seguir trabajando en la misma línea, ofreciendo nuevas iniciativas que impulsen la creación de empleo atendiendo a los perfiles de las personas desempleadas de nuestro municipio. La mayoría carecen de estudios o tienen estudios básicos, por ello, este año volveremos a ofrecer junto a Ikolan-Lanaldi cursos para fomentar la empleabilidad de las personas desempleadas sin estudios. Asimismo, ofreceremos subvenciones a personas emprendedoras que quieran poner en marcha un nuevo proyecto de coworking.

Trabajar nuevas iniciativas que fomenten el empleo ha sido y seguirá siendo una de nuestras principales prioridades para que año tras año la tasa de paro siga disminuyendo en Beasain.

EIT-AK PASATZEKO DIRU-LAGUNTZAK



Beasain Lagunkoia egitasmoaren eskutik, EITa (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa) pasa behar duten eraikinen zerrenda osatu da. Guztira, azterketa pasa behar duten 50 urtetik gorako 207 etxebizitzaren eraikinak daude herrian.

Udalak jakinarazpen gutuna bidaliko die jabeei eta diru-laguntzak eskuratzeko argibide guztiak ere azalduko dizkie, 2018ko udal aurrekontuetan EITak pasatzeko diru laguntza lerro berria jaso baitu Udalak.

Gutuna irailean bidali behar bazen ere, diru-laguntzak jasotzeko baldintzak zehaztu arte itxaron da herritarrei informazio guztia eman ahal izateko.

Dentro de la iniciativa Beasain Lagunkoia se han identificado 207 edificios de viviendas de más de 50 años que deben pasar la ITE (Inspección Técnica de Edificios) este año. El Ayuntamiento ha retrasado el envío de la carta informativa a fin de explicar a las y los propietarios de los edificios las ayudas de las que disponen para dicha inspección, ya que el Ayuntamiento ha creado una nueva línea de subvención este año para ello.





ENPLEGUA SUSTATZEKO EKIMEN BERRIAK ABIARAZIKO DITU UDALAK

Enplegu sustapena lehentasunezko gaia da udal gobernuarentzat, enpleguak pertsona duintzen duelako eta ongizate eta autonomiaren berme nagusia delako.

Gauzak horrela, herriko langabetuen profilak aztertu eta profil ezberdinei bideratutako hainbat egitasmo abiarazi ditu gobernuek legealdi honetan.

Ikasketak dituzten pertsonentzat, Goierri Lanbide Eskolaren bitartez eta enplegu planaren baitan, formakuntza ikastaro espezifikoak eskaintzen dira urtero. Formakuntza jaso ostean, parte-hartzaileek praktikak egiteko aukera izaten dute enpresa ezberdinetan.

Ekintzailetasuna sustatzeko helburuarekin, 2016. urtean Anezka inkubategia zabaldu zen eta aurten, coworking proiektuetarako diru-laguntzak eskainiko ditu Udalak. Horien bitartez, enpresa berrien sorrera babestu eta sustatu nahi da.

Azkenik, **ikasketarik ez duten langabetuen lan aukerak areagotzeko**, Ikolan Lanaldi enpresaren laguntzarekin ikastaro berriak abiaraziko dira lehengoz gain, bereziki, emakumeei zuzendutakoak.

Prioridad, impulsar y apoyar la creación de empleo

Abordar acciones anualmente para fomentar el empleo ha sido uno de los principales objetivos y compromisos para esta legislatura del equipo de gobierno municipal.

Por ello, cada año, en respuesta a las necesidades y al perfil de las personas desempleadas de Beasain, el Ayuntamiento pone en marcha diversas iniciativas.

Enplegua sustatzeko ekimenak Acciones para promover el empleo

| NORENTZAT? ¿PARA QUIÉN? | ZER? ¿QUÉ? | EMAITZAK RESULTADOS |
|---|---|---|
| Ikasketak dituztenentzat <i>Para personas con estudios</i> | Goierri Lanbide Eskola FORMAKUNTZA ETA PRAKTIKAK <i>FORMACIÓN Y PRÁCTICAS</i> | Formakuntza jaso duten pertsona kopurua <i>Nº de personas que han recibido formación</i> 10 Lanean Trabajando: %80 |
| Ikasketak ez dituztenentzat edo oinarritzko ikasketak dituztenentzat <i>Para personas sin estudios o estudios básicos</i> | Ikolan-Lanaldi IKASTAROAK CURSOS | Formakuntza jaso duten pertsona kopurua <i>Nº de personas que han recibido formación</i> 78 Lanean Trabajando: %30 |
| Ekintzaileentzat <i>Para personas emprendedoras</i> | ANEZKA | Bulego guztiak beteta (4) <i>Todas las oficinas ocupadas (4)</i> |
| | COWORKING | Proiektu berriak garatzeko diru-laguntzak (12 bulego) <i>Subvenciones para desarrollar nuevos proyectos (12 oficinas)</i> *Etorkizunean bulego kopurua handitu liteke <i>Opción de ampliar el nº de oficinas en el futuro</i> |

LAS NUEVAS PLAZAS DE ARANGOITI VAN TOMANDO FORMA

El Ayuntamiento ya ha comenzado a acondicionar y a equipar las 15 nuevas plazas de la residencia Arangoiti que serán concertadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa, previsiblemente, en junio. La Fundación Arangoiti invertirá 60.000 euros en equipar las mencionadas plazas para que éstas estén listas en junio. Por tanto, serán 15 las plazas que vayan a ser ocupadas por nuevas personas con necesidades psicogeriatricas. La concertación llega gracias a las gestiones realizadas y reuniones mantenidas por el equipo de gobierno con el Departamento de Servicios Sociales de la Diputación.

Arangoiti Fundazioak 60.000 euroko inbertsioa egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainean Arangoitin kontzertatuko dituen 15 plaza berriak egokitu eta atontzeko. Aldundiak hartutako konpromiso hori udal gobernuak Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin gauzatutako bilera eta egindako kudeaketa lanen ondotik dator.

URTARRILEAN BEASAINEN

103 urte!



Emiliana Garciak 103 urte bete ditu



Elurtea Beasainen



Urteko lehen azoka berezia



3x3 saskibaloia txapelketa



Garingo Jaiak (mendi lasterketa)



Pantaila digital berriak herritarrei informazioa helarazteko



Igartza Musika Programaren baitan KUP eta Vocaliaren kontzertuak

BEHAR GEHIEN DUTEN PERTSONENTZAT LAGUNTZA ETA AUKERA BERRIAK

Behartsuenei laguntza eskaintzea du helburu Caritas erakundeak. Eskualde mailan ekintza ezberdinak burutzen ditu gizarteak gehien baztertu dituen pertsoneri laguntzeko.

Udalaren helburu eta lehentasun nagusia pertsonak eta beren ongizatea izanik, lankidetzaren hitzarmena sinatua du Udalak Caritasekin. Diru-laguntza emateaz gain, helburu soziala duten baratzeeen proiektua elkarlanean garatu zuten eta Udalak Caritasekin esku utzi zituen hainbat baratze. Horri esker, baratze sozialetan 20 pertsona daude baratze-zaintza tailerrean okupazio lanetan.

2. fase batean, baratze sozialen proiektua abiapuntutzat hartuta, baserrigintza indartzeko baratzeetako erabiltzaileak eta baserritarrak harremanetan jarri nahi dira. Horrela, baserrietako errelebo arazoari eta lurrak lantzeko zailtasunari erantzun nahi zaie inguruetako eta baserrietako lurrak erabilgarri eginez, bertan ekoiztutako baratzki eta fruituen salmenta eta kontsumoa bultzatuz, nekazaritza sektorea indarberritzeko eta lan aukera berriak sortzeko.



Ayudar a las personas más necesitadas es el objetivo de Cáritas. Siendo las personas y su bienestar la prioridad del gobierno municipal, el Ayuntamiento de Beasain además de ayudar económicamente a esta organización para que pueda desarrollar su actividad, ha elaborado de forma conjunta el proyecto de las huertas sociales y dejado en manos de Cáritas 20 de las 60 parcelas del parque de huertas.

Estas huertas, que son ocupacionales, han proporcionado un oficio a 20 personas y en una segunda fase se quiere extender el proyecto a los caseríos de la zona con el objeto de ofrecer una solución a la falta de relevo generacional y a la dificultad para trabajar la tierra. De esta manera, se busca promover el sector y crear nuevos puestos de trabajo.

JUAN MANUEL BARANDIARAN, Cáritaseko boluntarioari **ELKARRIZKETA**

Pertsoneri laguntzea da zuen lanaren muina. Bi lan ildo estrategiko garatzen dituzue horretarako, integrazio soziokulturala, batetik, eta lan munduratzea, bestetik. Zein ekintza zehatz egiten dituzue helburu horiek lortzeko?

“Buscar empleo les resulta muy difícil porque su situación irregular les impide poder trabajar legalmente los primeros 3 años. Por ello, vemos en el primer sector una oportunidad de trabajo y les ofrecemos formación específica sobre agricultura”

Euskara eta gaztelania ikastaroak eskaintzen ditugu. Etorkinek arazo larria izaten dute hizkuntzarekin eta hizkuntza da kulturaren oinarria. Horregatik, hizkuntza irakasten eta gure gizarteko balioak lantzen ahalegintzen gara.

Lan munduratzea zailagoa izaten da, besteak beste, hona etortzean legez kanpo daudelako eta hiru urtetan lanik egin ezin dutelako.

Horregatik Caritasera edota Udalera jotzen dute laguntza eske, oso kasu bereziak baitira.

Egoera beltz horren aurrean, lehen sektorean jardutea aukera gisa ikusten dugu. Hori dela eta, baratzegintzako formakuntza zehatza eta sakona ematen diegu. Horri esker, haiek ekoiztutakoa haien esku uzten baitugu eta beraz, landutakoa jateko aukera dute.

Urrian ateak zabaldu zituen baratze parkeko 16 partzela zuen esku utzi ditu Udalak. Nola kudeatu dituzue?

Horiek kudeatzen ari gara, baina proiektua oso poliki doa. 15-16 pertsona daude momentu honetan izena emanda. Ostegunero elkartzen gara bertan. Plangintza egiten dugu eta ondoren bakoitzak bere lana askatasun guztiz egiteko aukera du. Irakasle profesional baten, zein boluntario talde baten, laguntza eta aholkularitza jasotzen dute.

Gainera, ekoizten den guztia beraiantzat izaten da. Hori guztia solidaritate filosofiaren inguruan egiten



da, izan ere, lana eta uzta elkarbanatu egiten baitira.

Beraz, Beasaingo Udalak proiektu honi ikuspegi berria eman dio, ikuspegi soziala, behartsuei zuzenduta eta 16 partzela Caritasen esku utzi izana benetan eskertzen dugu.

“16 personas están inscritas en las huertas. Nos reunimos cada jueves para planificar el trabajo, aunque después cada persona desarrolla su labor con total libertad. Contamos con la ayuda de un profesor y un grupo de voluntarios y la cosecha se reparte entre todas y todos”

Halaber Udalak, diru-laguntza ere ematen dizue. Garrantzitsua al da Caritas bezalako erakundeentzat, erakunde publikoen laguntza eta babesa izatea?

Bai, ikuspegi bikoitzetik da garrantzitsua. Guk egiten ditugun jarduera hauek ez dagozkigu guri, baizik eta administrazioaren betekizunak dira. Giza Eskubideak jorratzea eta garatzea administrazioaren eginkizuna da. Gu, Caritas, elizaren erakunde bat gara, bizitzaren inguruko filosofia bat dugu, solidaritatea landu nahi dugu eta argi dugu ezinbestekoa dela administrazioak eta guk elkarlanean jardutea. Udaletxeekin orokorrean oso ondo moldatzen gara.

Amaitzeko, zein ekintza edota egitasmo aurreikusi dituzue 2018rako?

Gure ahaleginak arazoaren ondorioak konpontzera bideratzen ditugu eta hori kamutsa da, ez da egokia; kausetan eragina izaten saiatu behar gara. Egoera hori

aldatzeko gizartea aldatu behar da eta era berean, lana sortu. Horretarako bi aukera polit daudela ikusten dugu.

Udaletxe batzuk langileak kontratatzeke beharra dute eta etorkinen gizarteratzea eta lan munduratzeko bi ikastaro

prestatzen ari gara: eginkizun anitzetarako ikastaroa batetik (igeltseroak, elektrikariak, iturginak...) eta iraupen luzeko ikastaroa bestetik (formakuntza, praktikak eta proiektua, enpresa bat sortzeko).

Bestalde, bigarren eskuko arroparekin zerikusia duen proiektu berria abiarazi nahi dugu, bereziki emakumeei zuzenduta, Goierri langabetu gehienak 25-50 urte bitarteko emakumeak direlako eta gainera, jubilatu berri den pertsona batek arropa ekoizteko makinak ere gure esku utzi ditu. Kasu honetan ere, formakuntza eta praktikak eskainiko ditugu.

“Para lograr fomentar el empleo tenemos entre manos nuevos e ilusionantes proyectos. Formaremos a las personas para que puedan responder a las necesidades de los Ayuntamientos (electricistas, fontaneros, albañiles...), ofreceremos formación de larga duración para la creación de nuevas empresas y promoveremos un nuevo proyecto ligado a la ropa de segunda mano para emplear sobre todo a mujeres”

“El Ayuntamiento ha elaborado el proyecto de huertas desde una nueva perspectiva, una perspectiva social para ayudar a las personas más necesitadas. Gracias a ello, contamos con 16 huertas que estamos gestionando poco a poco”

ANTZERKI GARAIA

OTSAILAK 16 FEBRERO

Txarriboda Usurbe Antzokia (Beasain)

MARTXOAK 2 MARZO

The Funamviolista Herri Antzokia (Ordizia)

MARTXOAK 16 MARZO

Zerura eroria Usurbe Antzokia (Beasain)

MARTXOAK 23 MARZO

Ergela Herri Antzokia (Ordizia)



APIRILA 13 ABRIL

Miss Karaoke Usurbe Antzokia (Beasain)

APIRILA 20 ABRIL

Ez dok hiru Herri Antzokia (Ordizia)

Emanaldi guztiak gaueko 22:15ean izango dira
 Todas las funciones serán a las 22:15h

DATUEKIN JOLASEAN

LARUNBATEKO AZOKA BEREZIA MERCADO ESPECIAL DE LOS SÁBADOS

Baseritarren azoka biziberritzeko asmoz, duela urtebete, larunbateko azoka berezia jarri zen martxan, bertako ekoizle eta baseritarren lanaren balioa azpimarratzeko eta tokiko produktuen kontsumoa areagotzeko. **BATEZ BESTE AZOKA BAKOITZEAN 166 SALMENTA EGIN DIRA.**

Maiatzekoa eta uztailekoa izan ziren, erosketa kopuru aldetik, azokarik arrakastatsuenak, hurrenez hurren, 280 eta 175 salmenta egin baitziren.

Con el objetivo de revitalizar el mercado semanal, poner en valor el trabajo de los y las baseritarras y promover el consumo de los productos locales y de temporada, hace un año se puso en marcha el mercado especial de los sábados. **SE HAN REALIZADO UN PROMEDIO DE 166 VENTAS EN CADA FERIA ESPECIAL.** La de mayo y julio fueron las más exitosas en cuanto a ventas se refiere ya que se realizaron 280 y 175 ventas.

JAKINARAZPENAK NOTIFICACIONES

EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL

| ZERGAK ETA TASAK IMPUESTOS Y TASAS | Kobrantsa epea Periodo de cobro |
|---------------------------------------|------------------------------------|
| TAO OTA | 2018.01.02 2018.02.28 |

IGARTZA MUSIKA PROGRAMA 2018ko lehen sehilekoa

| | |
|---|--|
| URTARRILA enero 20 19:30 Gabriel Baltes eta Basilio Astulez (zuzendariak) KUP eta VOCALIA taldeak LOINAZKO SAN MARTINEN BASILIKAN | APIRILA abril 20 19:00 LEMNISKATA Hitzaldia: Gure zortzikoa ANDER LETAMENDIA IGARTZAKO JAUREGIAN |
| OTSAILA febrero 18 19:00 TUTTURARUZI IGARTZAKO JAUREGIAN TUTTI FRUTTI IGARTZAKO JAUREGIAN | MAIATZA mayo 4 19:00 musikene Igartza Musika Beka SARITUAK IGARTZAKO JAUREGIAN Alejandro Saúl Martínez (biolontzale jotzailea) Hector Alganza (biolin jotzailea) |
| MARTXOA marzo 18 19:00 Conductus Ensemble Orkestra Andoni Sierra (zuzendaria) Loinatz Abesbatza Jon Aizpuru (zuzendaria) REQUIEM (Wolfrang Amadeus Mozart) ANDRE MARI ZERURATUAREN PARROKIAN | EKAINA junio 1 22:00 Guria ostatuan RUPER ORDORIKA IGARTZAKO JAUREGIAN |
| MARTXOA marzo 23 19:00 Andrea Cazzaniga (zuzendaria) MUSIKENE SINFONIETTA USURBE ANTZOKIAN | |

LOTURAK ENLACES



- **kzGunea**
www.kzgunea.eu
- **Musika Eskola**
www.beasaingomusikaeskola.eu



- **Antzizar kiroldegia**
www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia**
www.beasain.eu/euskaltegia

www.beasain.eu



Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016